


Uztapide eta Xalbador, denborak desberdin hartu dituen bi bertsolari

Nerea Uranga 2024ko eka. Sa, 20:00

Entzun ▶ ▼



Pako Aristi idazlea, Xole Aire Urepeleko auzapeza eta Mikel Arregi Zestoako alkatea, gaur Donostian. (Erein argitaletxea)

Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi liburua aurkeztu dute gaur Donostian. Zestoa eta Urepele bi udalerrriak senidetzearen egitasmoaren barruan idatzi du Pako Aristik. "Oso bertsolari desberdinak" izan arren, "oso harreman emankorra" izan zutela nabarmendu du idazleak, eta bien ibilbidean "kasualitate askorekin" egin du topo. Zestoa liburua inguruko mahai ingurua antolatu dute ekainaren 19rako.

Zestoa eta Urepele (Nafarroa Beherea) udalerrien arteko senidetzak oinarrian du Manuel Olaizola Uztapide eta Fernando Aire Xalbador bertsolari handien adiskidetzat. Senidetza horren bueltan, eta bi bertsolari horien inguruan, *Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi* liburua idatzi du Pako Aristi idazle urrestildarrak. Gaur aurkeztu dute lana Donostiako Udal Liburutegian, eta bertan izan dira Aristiz gainera, Inazio Mujika Erein argitaletxeko editorea, Mikel Arregi Zestoako alkatea eta Xole Aire Urepeleko auzapeza.

Bi herrien senidetzeari lotuta, zerbait iraunkorra edota denboran iraungo zuena egiteko nahia zutela azaldu du Arregik, eta hortik etorri zitzaizela liburua egiteko ideia. "Senidetzearen lekukotasun baten beharra ikusten genuen, eta zer hobeaz liburu bat baino", azaldu du aurkezpenean Zestoako alkateak. Zestoa bizi den Pako Aristiaren kafe bueltako tertulian, liburua egitea proposatu zion hari Arregik, eta Erein argitaletxearekin elkarlanean ateratu dute liburua. Urepeleko auzapezak azaldu du "plazer bat" dela beraientzat Zestoarekin egin duten senidetza proiektuaren eta liburuaren parte izatea, eta bi udalerriek elkarrengandik zer ikasi badutela. Aristi eskertu du egindako lanagatik, eta liburuak bi herrien arteko senidetzeari "zentzu gehiago" ematen diola gaineratu du.

Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi liburua "maitasunezkoa" dela adierazi du Erein argitaletxeko editoreak, eta "lan zoragarria" dela nabarmendu du. "Bi bertsolari eta idazle handi izan ziren Uztapide eta Xalbador, eta haiek idazle handi egiteko bidean Antonio Zabalak lan handia egin zuen", ekarri du gogora Mujikak Auspoa bildumaren gidaria.

Bi bertsolarien arteko adiskidetzaren gaineko liburuaren proposamena onartu ondoren, ikerketa lanari ekin zion Aristik, eta Auspoa bilduman Antonio Zabalak ateratako liburuetara jo zuen. "Esan beharra daukat lanari ekin nionean ez neukala oso argi bi bertsolari hauekin zer egin zitekeen, edota haien harremana zein izan zen. Orduan, ikertzen hasi nintzen. Material interesgarria eta era askotakoa aurkitu nuen Aita Zabalak ateratu zituen 300 liburu horietan. Auspoa bilduman bertso jaialdia, txapelketak eta jasota daude, baina baita bertsolarien prosa edota kronika lanak ere. Uztapideren eta Xalbadorren aipamen asko azaltzen dira. Material izugarri bat zegoela ikusi nuen, harrobi bat zegoela nire eskura, eta ni horri guztia hari, narrazioa, jartzen saiatu naiz", esan du Aristik.

Kasualitateak

Liburua idatzeko orduan "kasualitate asko" aurkitu ditu egileak. "Liburua hasten dut honakoa idatziz: 'Haur bat jaio da Endoian eta beste haur bat jaio da Urepelen...'". Bi haur jaiozen dira 146 kilometroara, Euskal Herrikoak dira biak, baina bi nazioetan daude, bat Espainian dago eta bestea Frantzian. Erdian muga bat dago. Euskara desberdina daukate, eta hor lan bat egin beharko dute elkar ulertzeko – batez ere Xalbadorrek—. Prozesu polit bat zegoela ikusi nuen".

Aristiren arabera, kasualitateetako bat da biek 16 urteekin kantatu zutela, eta beste bat, biek idatzi zutela prosa. Uztapidek *Lengo egunak gogoan* (1974) eta *Sasoi joan da gero* (1976) idatzi zituen, eta Xalbadorrek, berriz, *Odolaren mintzoa* (1976).

1936an Uztapidek aurreneko aldiz Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartu zuen eta bigarren gelditu zen, Txiritaren atzetik. Eta justu urte hartan Xalbadorrek bere lehen bertsoa kantatu zuen jendaurrean. Horra beste kasualitate bat idazlearen hitzetan.

Mugaz gaindiko bi bertsolariek 1946an egin zuten aurreneko elkarrekin topo, Zarautzen. Hala kontatu du Aristik: "Teodoro Hernandorena erbestetatuta zegoen Ipar Euskal Herrian, eta hark jaialdi bat antolatu zuen iparraldeko bertsolariekin, eta orduan egin zuten topo Mattinek eta Xalbadorrek; bertsoetako bikote bihurtu ziren, eta ez ziren apartatu. Garai hartan, Euskal Herriaren hegoaldean, Uztapide eta Basarri zebiltzan bertsotan bikote. Bi bikote. Gero, bikote aldaketa izan zen. Haiek egiten dituztenen aipamenak kontuan hartuta, uste dugu 1946an Zarauzko bertso saio batean elkar ezagutu zutela Uztapidek eta Xalbadorrek", kontatu du Aristik.

Harreman emankorra

Hiru urte geroago, 1949an, Uztapide aurreneko aldiz Ipar Euskal Herrira joan zen kantatzera, eta orduan hasi zen "30 urte iraun zuen" bi bertsolarien arteko adiskidetzat, 1976an Xalbador hil zen arte. Oso bertsolari desberdinak izan arren, "oso harreman emankorra" izan zuten Aristiren arabera. "Uztapide dieselatzen zen, eta pixka bat berotzen zenean eta buldozer bat bihurtzen zen, gelditu ezinik bertsotan egiten zuen. Oso segurua eta erregularra zen. Uztapide lurreko bertsolaria zen, mahai inguruko osoa, lagunartekoa, tradizioa oso ondo ezagutzen zuena, eta gauzak esateko moduak oso ondo menperatzen zituen. Errealitateari bete-betean kantatu zion, garaiko bertsolaririk onena zen dudarik gabe".

Xalbador, aldiz, "aireko" bertsolaria izan zen Aristiren arabera. "Abstraktoagoa zen haren bertsoak egiteko modua, filosofoa zen, poeta zen. Kantatzeko ere Xalbadorrek begiak itxita kantatzen zuen, ikusi nahi ez balu bezala aurrean zuen errealitatea, beste gauza bat amestuko balu bezala. Oso gizon berezia zen Xalbador, pentsaera politikoa zeukan, Euskal Herriaren batasunarekin ez zuen zalantza izpirik egiten. Hark bertsoetan garbi seinalatzen zituen Euskal Herriaren etsaiek zeintzuk ziren, Espainia eta Frantzia. Garai hartan hegoaldean frankismoa zegoen eta gauzak ezin zitezkeen hain garbi esan, eta horregatik, hegoaldeko bertsolarietan ez da hain garbi ikusten".

Elkar elikatu zuten bertsolari bikotea izan zen, Aristiren hitzetan, eta bien artean "bertsolaritza elikatu" zuten. 1960ko hamarkadan lortu zuten bi bertsolariek "gailurra": "Hamarkada horretan mantendu zuten bi bertsolariek sekulako maila". Hamar urteko hartan lau txapelketa nagusitan parte hartu zuen urepeldarrak. 1967ko Bertsolari Txapelketa Nagusian bi bertsolariak buruz burukora iritsi ziren, eta Xalbadorren izena esan zutenean jendeak txistua jo zion "zazpi minutuan". "Bi bertsolariek elkarrekin momentu gozo eta txar asko pasatu zituzten". Eta horren harira, 1972an Uztapide jendaurrean kantatu ezinik gelditu zenekoa ekarri du gogora Aristik. "Orduan jendaurrean kantatzeari utzi zion, eta idazten hasi zen".

Liburua idatzeko lanean ari zela galdera bat etorri zitzaion burura Aristiri: "Gaur egun nola ikusten dira bi bertsolariak?". Haren hitzetan, gaur egun Xalbador "bizirik" dago, baina Uztapide "ahaztuta" dago. "Uztapidek garaiko errealitateari kantatu zion, eta garaiak aldatu bezala ahaztu da. Xalbadorrek, aldiz, badirudi etorkizunari kantatu ziola. Hamabost talde edota kantari dira Xalbadorren hitzak musikatu dituztenak. Orain dela 50 urte hil zen poeta baten testuak erabiltzeak asko esan nahi du". Denborak desberdin hartu dituen bi bertsolari izan zirela nabarmendu du Aristik.

Liburuaren hitzaurrea Xabier Amurizak egin du, eta Aristik gogoratu du 1967ko Bertsolari Txapelketa Nagusian epaimahaiakide izan zela Amuriza.

Ekainaren 19an mahai ingurua, Zestoa

Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi liburuaren aurkezpena eta mahai ingurua ekainaren 19an egingo dute Zestoa. 19:00etan izango da, Kultur Etxean. Hizlari Pako Aristi liburuaren idazlea eta Xabier Amuriza bertsolaria ariko dira, eta Jon Artano kazetariak moderatuko du solasaldia.

KULTURA AZPEITIA ZESTOA

Gukak zu bezalako irakurleen babesa behar du tokiko informazioa euskaraz eta modu profesionalen lantzen jarraitzeko.

Izan Gukakide

Erantzun ▼



Ikusienak



Ate joka dituzte San Antonio jaiek Errezilen
Intza Trula eka 05, 11:30
ERREZIL



'Crossfit' ikastaroa eskainiko dute urritik aurrera Aizarnazabalen
Intza Trula eka 05, 09:00
AIZARNAZABAL



Kubatiri babesa adierazteko elkarretartatzea deitu dute arratsalderako
Mireia Galarza Bastida eka 05, 11:30
ZARAUTZ



Bainu egokituko zerbitzua zabalagoa izango da aurten Getarian
Onintza Lete Arrieta eka 04, 16:00
GETARIA



Zehaztu dute sanpelaioetako txosnetako egitaraua
Mireia Galarza Bastida eka 05, 14:30
ZARAUTZ



Epailearen aurrean deklaraturata, auziak zer bide jarraituko duen jakiteko zain gelditu dira grebalariek
Urtzi Oteiza eta Aitziber Arzallus eka 05, 15:00
AZPEITIA ZUMAIA

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK

Araba kalea 25
20800 - ZARAUTZ

Telefonoa: 943 89 00 17 / 943 81 38 41 | Helbide elektronikoa: urolakosta@hitza.eus

Codesyntaxek garatua
Creative Commons License



HONI BURUZ LEGE OHARRA PUBLIZITATEA ARAUAK HARREMANETARAKO RSS



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	AIURRI	ALEA	AMEZTI	ANBOTO	ANTXETA IRRATIA	ATARIA	ZUMAIA GUKA	BARREN	BEGITU	BERRIKETAN
DROGETEN ITURRI	GUKA TELEBISTA	ERRAN	EUSKALERRIA IRRATIA	GEURIA	GOIENA	GOIERRI TELEBISTA	GUAIXE	HIRUKA	ORIO GUKA		
KRONIKA	MAILOPE	AZKOITIA GUKA	NOAUA	OIZMENDI TELEBISTA	PLAENTXIA	TXINTXARRI	URIOLA	AZPEITIA GUKA	28 KANALA		

Matx Gurean Plazanbazan Tlap

Tokikom publikitatea